

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

2. GUNE ZABALAREN AKTA:

Eguna: 2022-03-30

Ordua: 18:00-20:00

Lekua: Tolosako kultur etxeako areto nagusia

Partaideak:

PARTE-HARTZAILEAK

Tolosaldeko emakume-elkarteetako, eragile feministetako nahiz norbanako gisa parte hartzen duten emakumeak. Guztira 51 emakume.

Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria

Elhuyarreko teknikariak (bi teknikari)

Gai zerrenda:

1.- SARRERA

Partaideei ongietorria eman diegu Tolosaldeko Emakumeen Etxea proiektuaren aurkezpena, eta **hizkuntzaren kudeaketa** nola egingo dugun azaldu dugu: aurkezpena euskaraz egingo da eta momentuko itzulpen-zerbitzua egongo da gaztelerara. Bilerarako prestatu dugun dokumentazioa bi hizkuntzetan banatu dugu, euskaraz ala gazteleraz aukeratzeko.


ALKATEAREN AZALPENA

Tolosako alkatek eskerrak eman dizkie bertaratuei, eta bereziki aipatu ditu Talde Eragilean buru-belarri ibili diren emakumeak prozesu luze honetan egindako lanagatik. Orain arte egindako ibilbidearen eta prozesuaren laburpena egin du segidan:

I. prozesu parte-hartzailea, 2018ko maiatzetik 2019ko urtarrilera burutu zen eta hauek izan ziren landutako gaiak:

- Maiatzetik ekainera: etxearen printzipioak, helburuak, nolakotasuna, erabilera eta jarduerak.
- Irailetik abendura: etxearen kudeaketa-eredua, antolaketa, baliabideak.

Hiru gune nagusitan egin zen lanketa:



Prozesuan zehar, guztira, **eskualdeko 104 emakume inguruk parte hartu zuten.**

Prozesuaren emaitza gisa, Talde Eragileak egindako proposamena **Tolosaldeko udal ordezkari guztiei aurkeztu zitzairen 2019ko otsailaren 18an egindako bilera batean**, eta bertan erabaki zen udal bakoitzak osoko bilkurara eramango zuela gaia, mozio bidez, hau adieraziz:

- ✓ Etxearen proiektua babestuko zutela.
- ✓ Proiektua sozializatu eta ikusgai egingo zutela udalerrri bakoitzean.
- ✓ Aurrekontu-partida bat aurreikusiko zutela giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak jartzeko, horrela, Etxearen jarduerak aurrera eraman ahal izateko.

Jarraian, Lantalde Politiko Teknikoak proiektu-proposamenaren bideragarritasuna zehaztu zuen, eta hau gauzatzeko helburuz, bigarren prozesu baterako diseinua egin zuen Elhuyarrek; 2020ko urtarrila eta azaroa bitartean gauzatea zen asmoa. 2020ko martxoaren 14an ordea, **COVID-19ak eragindako osasun-krisia** kudeatzeko dekretuak alarma-egoera ezarri zuen, eta ondorioz, **2020 urterako Elhuyarrekin adostutako proiektua bertan behera gelditu zen.**

Alkateak berak gutuna helarazi zien prozesuan parte hartu zuten emakumeei, bigarren prozesua bertan behera uzteko arrazoiak azalduz.

Handik urtebetera, **2021eko martxoan, jarri zen martxan II. prozesu parte-hartzailea**, 2018-2019 urteen artean burututako lehen prozesuari jarraipena emateko.

28 udaletatik 24 batu dira proiektura

Kanpoan geratu diren herriak: Hernialde, Abaltzisketa, Belauntza eta Albiztur

Emakumeen Etxea Tolosako Inpernu kaleko 5, 7 eta 10 zenbakietako lokaletan ezarriko da eta horretarako egokitze obrak egingo ditu Tolosako Udalak. **Obrekin lotutako hainbat xehetasun eman ditu alkateak:**

- Obra egiteko esleipena martxan dago eta, dena ondo bidean, ekainaren lehenengo egunetan hasiko dira obrak.
- Bi enpresek aurkeztutako eskaintzak baloratzeko kontratazio mahaia izango da aste honetan.


- Obra egiteko 8 hilabetetako epea aurreikusi da, beraz, 2023ko urtarrilaren hasierarako amaituta egon beharko luke.
- Paraleloki altzarien horniketari dagokion esleipena egingo da.
- Obra aurrekontua 680.000€ da, BEZa barne; altzariantzako beste 85.000€, BEZa barne.
- Zuzendaritza proiektua idatzi duen REHARK arkitektura estudioak egingo du obra; Ruth Vega da arkitekto zuzendaria.

BEGOÑA TOLOSAREN AZALPENA

Begoña Tolosa Tolosako Udaleko zinegotziak finantzaketa partekatua inguruko xehetasunak eman ditu. Tolosako Udalak zein Tolosaldeko udalek Emakumeen Etxea proiektuari egingo dioten ekarpen ekonomikoa eskualdeko udal ordezkariekin adostu eta finkatu da. Horrela erabaki da:

01 Proiektua kokatu

Finantzaketa partekatua: baliabideak



Begoña Tolosak azaldu du, Emakumeen Etxeak elkarren ondoan egongo diren bi eraikin izango dituela; guztira 600 metro karratu erabilgarri izango ditu.

Eraikinaren hornidura guztia **Tolosako Udalaren kargu** egongo da. Horrez gainera, gastu arruntetarako, jarduera eta zerbitzuetarako ekarpen ekonomikoa egingo du Tolosako udalak.

Bestalde aipatu du, udaletxeko berdintasun-technikarien eta Emakumeen Etxeko dinamizatzailearen etengabeko harremana eta elkarlana bermatuko dela, Etxearen dinamika aurrera eramateko eta honen jarraipena egiteko.

Tolosaldeko udalei dagokionez, hauek ere mantenu gastuei aurre egiteko ekarpena egingo dute, baita jarduerak eta zerbitzuak aurrera eramateko ekarpen ekonomikoa ere. Bestalde, Etxeko dinamizatzailearen lanpostuaren kostu guztiak beregain hartuko dituzte.

Finantziario gastuak herri bakoitzak duen ahalmen ekonomikoarekin lotuko dira.

ASTEASUKO ALKATEAREN AZALPENAK

Hauek Pili Legarrak emandako azalpenak:

- Emakumeen Etxeak eskualdeko izaera duenez, **Berastegi eta Asteasuko alkateek parte hartu dute parte-hartze prozesuan Tolosaldeko udalen ordezkari gisa**. Bi herri hauetako alkateen ardura izan da eskualdeko gainerako udalei informazioa zabaltzea. Horretarako urrats hauek eman dira:

<ul style="list-style-type: none"> • Mozio bidez, proiektuarekiko atxikimendua eskatu zitzaizen eskualdeko udal guztiei
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren gastuak kalkulatu ziren, eta udal bakoitzaren aurrekontuaren arabera diru banaketa proposatu zitzaizen. Gastuak bi zatitan banatu ziren: batetik, jarduera eta funtzionamendu gastuak, eta bestetik, dinamizatzaileren kontratazioarenak.
<ul style="list-style-type: none"> • 2021ko abenduan eskualdeko udalen arteko bilera egin zen proiektuaren inguruko informazio guztia ematez gain, proiektura batuko ziren ala ez erantzuteko eskatuz. Azkenean eskualdeko 23 udal batu dira (hauei Tolosako Udala batu behar zaie)

- Finantzaketa partekatua baita, Etxeko jarduerak eta funtzionamendu gastuak ordaintzeko **hitzarmena egingo da Tolosako Udalarekin**.

- **Dinamizatzaila kontratatze**ko modu desberdinak aztertu dira:

<ul style="list-style-type: none"> • Hitzarmen bidez (4 urteko epea du)
<ul style="list-style-type: none"> • Elkarte bat sortu (hau nork eramango duen zalantza sortu zen, udal idazkariak txandaka ibili beharko bailukete)
<ul style="list-style-type: none"> • Tolosaldea Garatzenen bidez (eskualdeko udalak aukera honen aldekoak dira)

Tolosaldea Garatzen bidez kontratatzea posible den ala ez argitzeko txostena eskatu zitzaion abokatu talde bati baina momentuz ez dago erantzunik. Tartean, Lan Erreforma lege berria onartu da eta honek ere eragina izango duela aipatu du Asteasuko alkateak. Dinamizatzaileren kontratazioa nola egingo den zehaztuta ez dagoen arren, aurrera egingo dutela ziurtatu du.

2.- EGINDAKO LANA AURKEZTU

Egindako lanaren aurkezpenean sartu aurretik, **girotze-ariketa bat egin dugu bertaratutakoen erradiografia egin asmoz**. Denok eserita egonda, galdera batzuk bota ditugu; baiezkoa denean erantzuna, partaideek altxa egin behar izan dute, ezezkoa denean berriz, eserita geratu dira. Hauek izan dira galderak eta erantzunak:

- Tolosaldeko Emakumeen Etxeak eskualdeari onurak ekarriko dizkiola uste dut. **Denak**
- Ez naiz Tolosakoa, eskualdeko beste herri batetakoa naiz. **15 emakume, %30**
- Tolosan bizi naiz. **%75**
- Noizbait parte hartu dut Tolosaldeko Emakumeen Etxeari buruzko beste bileraren batean. **%60**
- Jabekuntza Eskoletako ikastaroetan parte hartu izan dut. **%75**
- 30 urtetik behera ditut. **4 emakume, %8**
- Emakume elkarte edo Talde feminista bateko kide naiz. **%75**
- Etxearen irekiera ikusi nahi dut. **Denak**



Behin girotze-ariketa eginda, 2. parte-hartze prozesu honetan egindako lana aurkezteari ekin diogu. Argi utzi dugu, gaurko saioaren helburua **adostutakoa partekatzea** izango dela. Eduki asko dago bi ordutan azaltzeko. Horregatik, aurkezpen-saioa izango da gehiago, hausnarketa ariketak Talde Eragilean egin baitira (denera 6 izan dira Talde Eragilearekin egindako bilerak). Edozein kasutan, **ekarpenak egiteko aukera egongo da** eta horretarako, zati bakoitzaren amaieran 2-3 minutuko tarte utziko dugu postitetan ekarpenak idatzi edo galderak egiteko.

Aurkezpena 4 zatitan banatu da, eta **zati bakoitza Talde Eragileko kide baten edo biren artean azaldu dute**. Aurkezpena bera paperean banatu zaie bertaratuei karpeta batean.

02 Prozesuan landutako gaiak

- Etxearen **helburuak eta printzipio gidariak**
- Etxearen **erabiltzaileak**
- Erabiltzaileen **eskubideak eta betebeharrak**
- Etxearen **jarduerak eta zerbitzuak**
- Etxearen **kudeaketa-eredua**: lanerako guneak eta baliabideen kudeaketa
- **Finantzaketa** partekatua
- Etxearen **Elkartea**
- Etxearen **dinamizatzailearen profila eta funtzioak**
- Etxearen **funtzionamendua**: jendaurreko ordutegia, espazioen erabilera.
- **Espazioen deskribapena**



-> **Etxearen erregelamendua**

***Oharra**: Ikusi aktarekin batera bidalitako aurkezpen-dokumentua.

Egin diren EKARPENAK eta atera diren ZALANTZAK:

1.ZATIA

- *Printzipio gidariak* atalean **eskualdearen izaera oso eskasa** gelditu da.
- **Irisgarritasunaren ideia sakontzeko** eskatu da: alde fisiko edo arkitektonikoaz gain, alde humanotik ere gertukoa eta gerturatzeko erraza izatea Etxea. Teknologiarekin moldatzen ez direnentzat bideak erraztea, edo baliabideak ez dituztenei hauek eskaintzea (esaterako ordenagailuak egongo dira sarreran Interneteko kontsultak egin nahi dituenarentzat). Emakumeen Etxeen ezaugarria da leku seguruak izatea, gertukoak, emakumeen hitza ez zalantzan jartzea eta gertuko harrera egitea.

2. ZATIA

- Kudeaketa-ereduaren atalean informazio eta xehetasun asko dago. Edozein kasutan, proiektu irekia da eta Etxeak martxa hartzen duenean ikusiko da horrela funtzionatzen duen edo ez, eta **beharren arabera moldaketak egingo dira**.

3. ZATIA

- Dinamizatzailearen profilarekin lotuta aipatu da, euskara eta gaztelera jakiteaz gain, **beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzten emakumeekin** harremanetan jartzeko gaitasuna kontutan hartu beharko litzatekeela. Horretarako teknologia zehatzak badaudela aipatu da.
- **Emakume migratuek Etxearen funtzionamenduan parte hartzeko** bideak pentsatu ote diren galdetu da. Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariak eta Emakumeen Etxearen dinamizatzailea eskuz-esku ariko dira eskualdeko emakume mota guztiengana iristeko, tartean baita emakume migratuengana ere. Tolosaldeko migrazio-teknikariarekin ere elkarlanean ariko dira, eta horrek gertutasuna erraztuko du. Emakumeen Etxearen espazio guztiak irekiak direla aipatu da, edonork parte hartu ahal izateko. Azkenik, programazioan

aurreikusi diren "berdinen arteko taldeek", (emakume migratuena, emakume gazteena, emakume zaintzaileena) gerturatzeko zailtasun gehiago dituzten kolektiboak Etxearen egunerokora hurbiltzeko balioko dutela uste da.

- Jarduera ludikoetan, **ekimen gastronomikoak aurrera eramateko muga** egongo dela aipatu da, sukaldarik ez delako egongo. Office bat egongo da, beraz, baliabide hauek ematen dituzten aukeren arabera ekimenak antolatu ahal izango dira.

4. ZATIA


- **Intsonorizatuta egongo den gelarik** aurreikusten ote den galdetu da. Prozesuan eztabaida eragin duen gaia izan da, besteak beste, Batukadak eskari hori egin zuelako. Azkenean ez da posible izan aurrera eramatea, besteak beste, goran bizilagunak daudelako.
- **Elkarteko bazkide izateko** noiz eta nola eman behar den izena galdetu da. Lehenik elkarte eratzeko da eta ondoren bazkide izateko gonbidapena egingo zaie emakume guztiei. Elkarte eratzeko lantalde bat jarriko da martxan. Aipatu da, Etxeko erabiltzaile guztiek ez dutela zertan Elkarteko bazkide izan baina aukera denek izango dutela.


3.- ETXEAREN IZENA ERABAKI

Lehenengo parte-hartze prozesuan hainbat izen aukera atera ziren, horietatik lehen bozketa bat egin zen Talde Eragilean eta bertan bozkatuenak izan ziren hiru izenak ekarri ditugu gaur hona, denon artean horietako bat aukeratzeko:

- **Andragora**
- **Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxea**
- **Tolosaldeko Emakumeen Etxea**


Bozkatzeko irizpidea hau izan da: pertsona bat=bozka bat, eta ezin izan da bozkatu aukera bat baino gehiago. *Wooclap* programaren bidez bozkatu dugu zuzenean modu anonimoan, eta pantailan agertu da **izen bozkatuena**: ANDRAGORA TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA.





4.- PROZESUAREN BALORAZIOA ETA ITXIERA

Prozesua baloratzeko helburuz, eta *wooclap* programarekin jarraituz, bigarren galdera bat erantzutea proposatu dugu: **nola definituko zenuke hitz batean gaur aurkeztu dugun Emakumeen Etxea proiektua?** Hauxe emaitza:



Gogoratu dugu parte-hartze prozesua amaitu dela baina **Etxea ireki bitartean nahi duenak lantaldeetan parte har dezakeela.** Lantalde hauek jarriko dira martxan:

- Elkarte sortzeko eta elkartearen kudeaketarako lantaldea
- Altzariak eta obren jarraipena
- Komunikazioa
- Etxearen inaugurazioa eta programazioa

Lantaldeetan parte hartu nahi duenak harremanetan jarriko beharko du Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariarekin berdintasuna@tolosa.eus helbidearen bitartez.

Amaitzeko, Elhuyarretik eskerrak eman dizkiegu bileran parte hartu duten emakume guztiei eta bereziki, urte honetan buru-belarri lanean aritu diren **Talde Eragileko eta Lantalde Politiko Teknikoko partaideei** (beheko argazkian bi talde hauetako zenbait partaide).



Bukatzeko, **bilera baloratzeko** balorazio-orriak banatu ditugu. Hauek dira jasotako balorazioak 1-5 eskalan, 1= oso txarra eta 5= oso ona dela aintzat hartuta:

BALORAZIO-ALDAGAIA	BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA (1-5)
BALIAGARRIA	4,5
INFORMAZIO GARDENA	4,5
ULERGARRIA	4,4
METODOLOGIA EGOKIA	4,3

- **Zerk sentiarazi zaitu ongi?**
- *Egindako lan handiaren emaitza. Ilusioa sortu dit.*
- *Conocer de cerca el proceso de creación de la Casa.*
- *Emakume asko etorri direla.*
- *Aurkezpena Tolosa eta Tolosa inguruko edozein emakumeri irekia izan dela. Aurkeztutako informazioa eta azalpena.*
- *Elkartasuna. Errespetoa.*
- *Emakume asko inguratu izana. Emakume etorkinen presentzia. Eskualdeko herrietatik azaldu direnak.*
- *Dinamikoa eta parte hartzailea.*
- *Emandako informazioa.*
- *Ilusioa.*
- *Elkarlana. Aurkezpena lagun ezberdinen artean egitea.*
- *Talde Eragileak hitza hartzea.*

- *Etxearen sortze lanean aritutako emakumeen parte hartzea.*
- *Parte hartzaile ezberdinen artean egitea aurkezpena, dinamikoa izan da.*
- *La oportunidad de tener Casa en Tolosa.*
- *Agradecimiento a los equipos de trabajo por su esfuerzo y compromiso.*
- *La idea de gestionar la casa en Tolosa es muy importante para todos los géneros y etnias que se encuentran en Tolosa.*
- *Información muy completa.*
- *Que haya traducción simultánea en castellano.*
- *Prozesuaren bukaerara iristea. Informazio ugari denbora laburrean.*
- *Denbora luzeko lana ondo jaso da.*
- *Aurkezleak egin dituen borobiltze lanak, atsegina egiten da, ordenatzen du. Aurkezle guztiek egindako lanak benetan eskertzekoak dira.*
- *Emakume askoren parte-hartzea/protagonismoa. Itzulpen zerbitzua. Informazio zehatza.*
- *Que esté impreso en castellano.*
- *La información y la participación.*
- *Parte hartzeko erraza.*
- *Izugarritzko lana. Bileretan parte hartu ez duenarentzat ilusioa sortzen duen proiektua.*
- *El proceso de la explicación. La traducción en castellano.*
- *Azalpen argiak sekula parte hartu ez dugunontzat!*
- *“Todo”. Buen trabajo.*
- *La incidencia en sensibilidad, confidencialidad, seguridad, empatía, etc. Un espacio abierto para nosotras.*
- *Egindako lana ikustea.*
- **Zerk sentiarazi zaitu deseroso?**
 - *Agian txapa pixka bat.*
 - *Quizás demasiada información para el tiempo.*
 - *Pantailan aurkeztu den informazioa modu eskematiko batean agertu beharko zan. Erakargarriago eta ulertzeko eta irakurtzeko errazago.*
 - *Emakumearen Etxeak benetako sukaldarik ez izatea. Batukada Feministak bertan tokirik ez izatea. Horrelako Etxearen tamainarekin eta proposatzen diren ekintza eta funtzioekin, dinamizatzaile bakarra izatea gutxi dela uste dut.*
 - *Dena ulertzeko zaila izan da.*
 - *Zehaztu gabeko zenbait puntu.*
 - *Iraupena.*
 - *Azalpenak emateko modua, pixutsua, irakurtzen aritzea, esposaketa arinagoa beharko luke nahiz eta jakin ez dela erraza.*
 - *Sukaldea ez egotea etxean, sukaldeak asko elkartzen du.*
 - *Sukalde handiagoa jarriko nuke. Emakumeen beharrea, EMAKUMEON etxea.*
 - *Esperamos que se abra pronto.*
 - *Creo que tomar opinión en un espacio abierto y grande a veces puede ser limitado para la participación. No hubo personas racializadas en el equipo de trabajo.*
 - *Aurkezpenean testu gehiegi.*
 - *Demasiada información en poco tiempo.*
 - *Me hubiera gustado que fuera en castellano.*
 - *Informazio gehiegi agian denbora gutxian.*
 - *Eskualdeko ikuspegia ez dut antzeman.*

Etxearen INAUGURAZIOAN elkar ikusiko dugu!!!
Eskerrik asko!

